

Nerabeak.mp3

Esataria: Gaurko saioan, nerabezaroari buruz hitz egingo dugu, eta, horretarako, Martin Larrea psikologoa gonbidatu dugu. Arratsalde on, Martin.

Martin: Arratsalde on.

Esataria: Giza garapenean, nerabearoa izango da, ziurrenik, aldaketa gehien pairatzen den garaia, ezta?

Martin: Bai, hala da. Nerabeak, fisiologikoki, aurreko etapetan baino aldaketa sakonagoak eta azkarragoak jasaten ditu. Itxura berri horrek, askotan, hainbat sentimendu sortzen dizkio: lotsa, konplexua, sentiberatasuna, kontraesanak... Garrantzi handiko garaia da neska-mutilentzat, aldaketa-, proba- eta aurkikuntza-garaia delako. Gertatzen zaizkion arazoak larriak eta behin betikoak iruditzen zaizkio, eta kutsu melodramatikoa hartzen du denak.

Esataria: Noiz hasi eta bukatzen da nerabearoa?

Martin: Zaila da nerabearoa kronologikoki zehaztea. Munduko Osasun Erakundeak esaten du 10-11 urte bitartean hasten dela nesken, 12-13 urte bitartean mutilen, eta 19-20 urte bitartean bukatzen dela, gutxi gorabehera.

Esataria: Garai honetan zergatik izaten dira gurasoekin hainbeste tirabira eta haserre?

Martin: Nerabeak bere tokia eta identitate berria bilatu behar ditu helduen munduan, eta probak egiten ditu bizimodu berriekin. Bilaketa horretan, gurasoengan gero eta akats gehiago bilatzen ditu, aitzakiak behar dituelako gurasoengandik aldentzeko. Gurasoek, ordea, ez dute beti ulertzen gaztearen jokabide hori, eta debekuak eta zigorrak jartzen dizkiote. Ondorioz, arazoak konpondu beharrean, okertu egiten dira. Baina nerabeak gurasoen babesa behar du oraindik ere, eta hurbiltze-urruntze jolasean ibiltzen da.

Esataria: Zer egin dezakete gurasoek seme-alaba nerabeekin hobeto moldatzeko?

Martin: Garbi dago, bizikidetzaren osasuntsua izateko, bi aldeek egin behar dutela ahalegina: nerabeak bere eta besteen mugak ezagutu eta errespetatu behar ditu, eta helduak arreta eta ulermen berezia eskaini behar dizkio nerabeekin helduarora sendo, ziur eta osasuntsu iristeko. Nerabe-guraso arteko komunikazioa eta bizikidetzaren zailak dira; horregatik, gurasoen egitekoa oso garrantzitsua da, horren arabera gero eta harreman estuagoa izan dezaketelako nerabeekin, edo, alderantziz, gero eta hotzagoa.

Esataria: Eta lagun-taldearen garrantzia izugarria da nerabeentzat, eta, zer esanik ez, sexuaren garrantzia.

Martin: Bai, bai, jakina. Garai honetan, bere adineko pertsonekin duen harremana gero eta sendoagoa da, eta lagun-taldearen behar handia dauka, identitate berria sendotzen laguntzen baitio. Lagunekin ateratzeko irrikaz egoten da, eta, gaez baldin bada, are gehiago. Edozein arrazoi da ona ateratzeko.

Bestalde, sexualitateari gero eta arreta handiagoa eskaintzen dio: telebistan, filmetan, musikan... Eta lehenengo esperientzia erotikoa eta sexualak garai honetan izaten ditu, normalean.

Esataria: Mila esker, Martin, azalpen hauek guztiak emateagatik, eta hurren arte.

Martin: Eskerrik asko zuei, eta nahi duzuen arte.